4. d) balioabetzearen ziozko baxei buruzkoa



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

5. e) kreditu gehigarriak
6. f) itunei buruzkoa

Aldaketa-espedienteak legezko aginduetara eta hurrengo artikuluetan arautzen diren berezitasunetara makurtuko dira.

9. artikulua.- Kreditu-transferentziak

Kreditu-transferentzia gastu-aurrekontuaren aldaketa bat da, bere zenbatekoa aldatu gabe, kreditu baten zenbateko osoa edo partziala lotura juridiko desberdinetako aurrekontu-partiden artean insuldatzen denean.

Kreditu-transferentziak aurrekontu-partida berriak sortzea inplika dezakete.

Edozein motako kreditu-transferentziek ondorengo muga hauek izango dituzte:

- a) Ez dituzte gutxituko transferentzia-sistemaren arabera edo kreditu gehigarrien bidez gehitutako ordainketa-kredituak, ezta konpromiso-kreditua Aurrekontu-araudiari buruzko Foru Arauaren 22.4 artikuluan ezarritakoaren arabera gehitua daukatena ere.
- b) Ez dituzte gehituko beste transferentzia batzuen ondorioz gutxituak izan diren kredituak.
- c) Zabalgarritzat jotako kredituak gutxitu ahal izango dituzte, baina kalifikazio hori galdua, eta beraz geroago ezingo dira gehitu.

Aurreko muga horiek ez diete eragingo pertsonaleko kredituei buruzko transferentziei, eta ez dira aplikatuko ere Gobernu Juntak onartutako administrazio-berrantolaketak eragindako transferentziei.

Ekitaldian onartzen diren kreditu-transferentziek 21/2003 Foru Arauak 14.6 artikuluan ezarritakoa bete beharko dute, hau da, hasierako defizitik gabe, eta eragiketa arruntengatiko sarrerak izan daitezela, gutxienez, izaera bereko gastuen gehi zorpetzegatiko amortizazio-gastuen berdinak.

Eskumena

Programa-talde baten barruko transferentziak toki-erakundeko lehendakariaren eskuduntza izango dira, salbu inbertsio errealetarako aurreikusitako diru-kontsignazioak gutxitzen dituztenak. Inbertsio gutxitzea programa eta departamendu berdineko inbertsioak finantzatzeko bada, batzorde informatiboaren oniritziarekin onar dezake lehendakariak, besteak Gobernu Juntak onartuko ditu.

Programa-talde arteko transferentziak Erakundeko lehendakariak onartuko ditu, jatorrizko eta helburuko programetan metaturiko aldaketek hasieran aurreikusitako



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

kontsignazioen %25 gainditzen ez badute eta inbertsio errealetarako kontsignazioak gutxitzen dituztenean izan ezik.

Gainerako kasuetan, erabakia Gobernu Juntak onartuko du.

Izapideak

- Korporazioko lehendakariak espedientea hastea.
- Kontu-hartzailetzaren txostena.
- Lehendakariak edo, hala dagokionean, Gobernu Juntak onartzea.

10. artikulua.- Kreditu-gaikuntzak

Ekitaldian lortutako diru-sarrerek —Erakundearen Aurrekontuetako sarrera-egoeretan aurreikusi gabeak direnean, edo horien kopuruak Aurrekontuetan aurreikusitakoak gainditzen dituztenean— Aurrekontuetako Gastuen Egoeretan kredituak sortu ahal izango dituzte.

Kreditu berrien gaikuntzarako, edota aurrez daudenak handiagotzeko, erabili ahal izango dira 21/2003 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal-erakundeen aurrekontuei buruzkoan, 31. artikuluan 2. atalean zerrendaturiko eragiketetatik eratorriak, aipaturiko artikuluen 3 eta 4. ataletan ezarritako baldintzak betez.

Onarpena

- Zerbitzu bakoitzeko arduradunaren proposamena
- Kontu-hartzailetzaren txostena
- Espedientea onartzea, lortutako diru-sarrerek izaera finalista dutenean, Korporazioko lehendakariari dagokio. Gainerako kasuetan, onartze hori Erakundeko Gobernu Juntari dagokio.

11. artikulua.- Kreditu-txertaketak

1.- Kasu bakoitzean, indarrean dagoen ekitaldikoak izanik, bakoitzaren aurreko ekitaldiko aurrekontuetako gastu-orrien barruko ordainketa-kredituak txertatu ahal izango zaizkio Toki-erakundearen Aurrekontuari, betiere jada onartutako betebeharrak edo obligazioen menpe ez badaude eta ondorengo kasu hauetakoren batekoak direnean:

- a) Baimendutako transferentziaren xede izan diren kredituak eta kreditu gehigarriak, betiere, kasu bietan, ekitaldiko azken hiruhilekoan emanak direnean.
- b) Erabilitako gastuei dagozkien kredituak, betiere, bidezko arrazoiak direla-eta, beraiekiko betebeharrak ezin hartua denean.
- c) Gaitutako kredituak eta lotutako sarreraren menpeko beste kreditu batzuk.
- d) Kapital eragiketen ziozko kredituak.

2.- Kredituak txertatzen direnean, jatorrizko Aurrekontuan zuten helburu berdinarekin egingo dira.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

3.- Kreditu-gerakinak txertatu ahal izateko, horretarako nahikoa finantza-baliabide egon beharko da.

4.- Kreditu-txertaketak eransten diren ekitaldiaren barruan erabili beharko dira, geroago ezin daitekeelarik txertaketa gehiago egin, helburudun sarrera edo sarrera finalisten bitartez finantzatzen diren kapital-eragiketak direnean izan ezik.

Halaber, txerta daitezkeen kredituak, 21/2003 Foru Arauan dauden xedapenak direla bide, ekainaren 30erako bakoitzaren aurrekontuei txertatzen ez bazaizkie, baliorik gabe geldituko dira.

5.- Kredituak eginkizun-egitarau edo programa barruan sartuz txertatuko dira, betiere programa horiek bakoitzaren jarraiko ekitaldiko aurrekontuetako gastu-orrien barruan sartuta egon eta, gauzatzeari dagokionez, txertatuak diren kredituak zeudenen jarraipena direnean.

Beharrezkoa bada, programari alta emango zaio indarrean dagoen aurrekontuaren egiturari.

6.- Kreditu-txertaketak egiteko eskumena, aurreko zenbakietan dauden irizpide eta abiaburuekin bat etorriz, toki-erakundeko lehendakariak dauka, aurrez Kontu-hartzaitzako txostena eginda.

7.- Ordainketa-kredituak direnean, baldin eta onetsiak izandako ekitaldian konprometitu ez badira eta konpromiso-kredituei badagozkie, haien txertaketa eginez gero, azken kredituok ere automatikoki txertatuko dira.

12. artikulua. Baliogabetzearen ziozko baxak

Baliogabetzearen ziozko baxak 21/2003 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal-erakundeen aurrekontuei buruzkoan, 6.3 artikuluan 1, 2 eta 3. ataletan ezarritakoaren arabera egingo dira.

Baliogabetzearen ziozko baxa Gobernu Juntak onartuko du.

13. artikulua.- Kreditu gehigarriak

1.- Kontsignaturiko ordainketa-krediturik eduki gabe edo, kreditua edukita, berau aski ez bada eta gainera zabalgarria ez bada, eta gasturen bat egin behar eta Aurrekontu-araudiari buruzko Foru Arauan ezarritako aldaketa-erregimenaren bidez ezin bete denean, kreditu gehigarria emateko izapidera joko da.

2.- Kreditu gehigarriari buruzko espedientea Kontu-hartzaileak txostena eman ondoren izapidetuko da, 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan 2. atalean eskatzen diren agiriek.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

3.- Kreditu gehigarriari buruzko espedientea, sinatu eta txostena eman ondoren, Gobernu Juntari bidaliko zaio, onets dezan. Edonola kreditu gehigarriak Epeleko fondotik finantzatuak direnean, Lehendakariak izango du kreditu gehigarriak onartzeko eskumena, betiere, kreditu hauen balio metatuak aurrekontuaren %5 gainditzen ez badu.

14. artikulua.- Kreditu zabalgarriak

Gastu-egoeren aurrekontu-kredituak gehitu egin ahal izango dira, zabaldu nahi den kredituari lotuta dauden sarreren aurrekontuan aurreikusitakoak baino eskubide handiagoak irmo aitortu edo onartuz.

Ondoren Zerrendatuko diren Gastu Aurrekontuko partidak zabalgarriak izango dira:

Partida	Partida azalpena	2026
1000.833.920.00.01	Pertsonalarentzako Aurrerakinak	13.522,80 €
3003.221.162.10.99	Salmentarako eta banaketarako ontzi horniketa	8.000,00 €
3004.226.162.10.92	Poltsa konpostagarriak	40.000,00 €
3004.227.162.31.07	Beel-Hondakin Ez Onargarrien Kudeaketa	6.500,00 €
3004.227.162.31.08	Beel-Hondakinen Garraioa	2.000,00 €
3004.227.162.31.72	eskonbro kudeaketa	180.000,00 €
3004.227.162.31.73	Beel-Hondakin Arriskutsuen Kudeaketa	35.000,00 €
3004.227.162.31.74	Beel-Egurraren Kudeaketa	1,00 €
3004.227.162.31.75	Beel-Plastikoaren Kudeaketa	30.000,00 €
3004.227.162.31.76	Pneumatikoen kudeaketa	8.000,00 €
3004.227.162.31.99	Bestelakoen tratamendua	2.000,00 €

Partida horiek ondorengo baliabideekin finantzaturiko gastuetarako dira, espresuki lotuta daudenak partida horiekin:

2.1000.833.920.00.01 Ordainketen aurrerakina berreskuratzea

2.300x.300.162.10.xxTxatarra, toner, bateria, RAEE, egur, paper, txartel, ontzi, poltsa konpostagarri salmenta...

Espediente hori onartzeko eskumena duena: Korporazioko lehendakaria

15. artikulua.- Kreditu globala

Kreditu globala, ordainketarako beste kreditu batzuen zuzkiduren askiezak betetzeko edo zuzkidurarik ez duten beharrezanei aurre egiteko, bai eta 21/2003 foru arauan xedatutakoaren arabera zabalgarritzat hartzen diren kredituak finantzatzeko ere.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Horrela eraturako kreditu globalaren zuzkidura ez da mankomunitatearen aurrekontuko ordainketa-kredituen zenbateko osoaren %5 baino gehiago izango, zenbateko horren barruan kreditu globalaren beraren zuzkidura dagoela.

Kreditu globalak honako prozedura hau bete behar du:

- a) Ezin da zuzenean kreditu global horren aurka gastu baimenik eman.
- b) Kreditu globalak jatorritik erabili behar dira beti; kreditu globala ezin da inolaz ere gehitu, gero udalbatzak baimendu eta aldaketa onetsi ezean, beti ere hasierako ordainketa-kredituen %5eko muga errespetatzen dela.
- c) Kreditu globaletik egiten diren transferentziei ez zaizkie aplikatuko arau honetako 7. artikuluko xedapenak.

AURREKONTUAK GAUZATZEKO PROZEDURA - GASTUAK

16. artikulua.- Gastuen Aurrekontua kudeatzeko faseak:

1. Gastuen Aurrekontuen kudeatzea fase hauen bidez egingo da:

- a) Gastua egiteko baimena. (A)
- b) Gastuaren xedatze/erabiltze edo konpromisoa. (D)
- c) Betebehar edo obligazioa onartzea eta kitatzea. (O)
- d) Gastua agintzea. (ME)
- e) Ordainketa materialki gauzatzea. (P)

2. Hala ere, eta zenbait kasutan berariaz horrela ezarrita dagoenean, Gastuen Aurrekontua kudeatzeko administrazio-egintza berberak aipaturiko kudeatze-fase bat baino gehiago hartu ahal izango ditu, eta horiek metatzen dituen administrazio-egintzak administrazio-egintza banatuetan erabaki balira bezalakoxe efektu edo ondorioak izango ditu. Baina soil-soilik kasu hauek eman daitezke:

- a) Baimentzea-Xedatzea/Erabiltzea.
- b) Baimentzea-Xedatzea/Erabiltzea – Betebeharra onartzea.

Kasu honetan, erabakia hartzen duen Organoak eskumena izan behar du bertan sartzen diren fase guztiak eta bakoitza ere erabakitzeko.

17. artikulua.- Gastuak baimentzea. (A)

1. Gastua Baimentzea gastua gauzatze prozeduraren hasiera da, eta zenbateko finkoa edo gutxi gorabeherakoa duen gastua kreditu jakin baten kargura egitea erabakitzen deneko egintza da; kreditu osoa edo zati bat erabiltzen da horretarako.

2. Aurrekontuetan baimendutako kredituen barruan, gastuak Erakundeko lehendakariak edo Gobernu Juntak baimenduko ditu, edota indarreko arautegiaren arabera horretarako ahalmena duten organoek. Ekitaldi bakoitzeko aurrekontua



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

gauzatzeko oinarrietan ezarri behar dira, gastu-baimentzeari dagokionez egin diren deskontzentrazio edo eskuordetzeak.

3. Zehatz esanda, gastua baimentzea honako hauei dagokie:

GOBERNU JUNTARI

- 10.000 € baino gehiagoko obra, zerbitzu eta hornikuntzen kontratazioa.
- Urte anitzeko gastu guztiak onartzea.

KORPORAZIOKO LEHENDAKARIARI

- 10.000€-rainoko obra, zerbitzu eta hornikuntzen kontratazioa, horretarako aurrekontuan diru-kontsignazioa baldin badago.
- 10.000€ eta 15.000€ arteko zerbitzu eta hornikuntzen kontratazioa, eta 40.000€ arteko obra kontratazioa aurrez Informazio Batzordeak dagokion proposamena egin ondoren.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentraletik bideratutako kontratuak esleitzea eta luzapenak onartzea.

Larrialdi eta premiazko kasuetan, edozein kopurutako gastuak baimendu ahal izango ditu, gero horren berri Gobernu Juntari emanez, hau jakinaren gainean egon dadin.

ZERBITZU BAKOITZEKO ARDURADUN POLITIKOARI

- 5.000€-rainoko obra, zerbitzu eta hornikuntzen kontratazioa, bere zerbitzuari dagozkion gastuetan.
- 5.000 € eta 15.000 € arteko zerbitzu eta hornikuntzen kontratazioa, eta 40.000€ arteko obra kontratazioa aurrez bere zerbitzuko Informazio Batzordeak dagokion proposamena egin ondoren.

Gastuak baimentzeko espedientea Zerbitzuko arduradun teknikoaren proposamenez hasiko da, SarEko aplikazioan eskaria eginez, gastuaren premia arrazoitu edo justifikatuz. Zerbitzuaren arduradunak artikulu honetan ezarritako organo eskudunari aurkeztuko dio gastuaren premia, onespena eman diezaion, eta gero Kontu-hartzailetzara bidaliko du bere fiskalizaziorako eta dagokion txostena egiteko, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

Eskarien espedienteetan gutxienez hiru aurrekontu eskatu direna islatu beharko da 3.000€tik (BEZ kanpo) gorako horniketa eta zerbitzu kontratazioan, obra kontratazioan 5.000€tik (BEZ kanpo) gorakoetan.

18. artikulua.- Nahitaezko baimen-hipotesiak

1. Kontratazio-espedientea behar duten gastu guztietan, nahiz eta zuzeneko kontratazioa izan, espedientearen hasieran eskaria tramitatuko da sarEkon, dagokion Zerbitzuak egindako proiektuaren kostu edo aurrekontuaren kopuru berdinez.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

2. Oso kasu larri eta premiazkoetan bakarrik egingo dira mandatuak, Baimen-izapiderik gabe. Baina horrelako kasuetan, espedientea bideratzeko agiriak prestatuko dira, eta Kontu-hartzaitzara helaraziko dira hurrengo lehen lan-egunean.

19. artikulua.- Gastuen Xedatzea/Erabiltzea. (D)

1. Gastuen Xedatze/Erabiltze edo Konpromisoa aurrez baimendutako gastua egitea erabakitzen duen egintza da. Adierazgarritasuneko garrantzi juridikoa du besteez, eta Toki Erakundea gastu zehatz eta jakin bat egitera lotzen du, bai bere kopuruan eta bai bera gauzatzeko baldintzetan.

2. Gastuen Xedatze edo erabiltzea onartzeko Organo eskudunak hori Baimentzeko eskumena dutenak dira.

20. artikulua.- Betebehar edo obligazioa onartzea. (O)

1. Egintza honen bidez Erakundearen aurka eska daitekeen kreditu bat dagoela aitortzen da, baimendutako eta konprometituriko gastu batetik datorrena, organo eskudunaren aurrean prestazioa egin dela edo hartzekodunaren eskubidea agiri bidez egiaztatzen bada, bere garaian gastua baimendu eta konprometitu zuten erabakien arabera.

2. Zerbitzu bat emate hutsa edo hornikuntza edo obra bat egite hutsa ez da aski titulu Erakundeak bere burua zordun jotzeko kontzeptu horrengatik, agintaritza edo organo eskudunak ez baditu haiek errekeritu edo eskatu. Aurrez ez bada egon dagokion baimentzea, pertsona bakarraren betebehar edo obligazioa sor daiteke materialak eta efektuak itzultzeko edo hornitzaileari edo gauzatzaileari kalte-ordaina emateko.

3. Betebeharraren onartzea egiaztatzeko agirietan gutxienez honako datuak sartu behar dira:

- a) Erakundearen identifikazioa.
- b) Kontratataren identifikazioa.
- c) Fakturaren zenbakia.
- d) Egindako horniduraren edo emandako zerbitzuaren deskribapen nahikoa.
- e) Mandatua egin zuen Zerbitzua.
- f) Esleipena babesten duen gastu-espedientearen zenbakia.
- g) Hala badagokio, aurrez fakturatutako zenbatekoa, aipatu gastuari buruz.
- h) Kontratataren sinadura.

4. Aipaturiko agiri edo dokumentuak hartuta, dagokion Zerbitzura bidaliko dira, adostuak izan daitezen, zerbitzua edo hornikuntza kontratuko baldintzen arabera gauzatu dela egiaztatuz.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

5. Betebehar hori beteta, Kontu-hartzailetzara bidaliko da, han fiskalizatzeko. Erreparorik egonez gero, Zerbitzura itzuliko dira, aurkitutako akatsak zuzen daitezen, hori posible bada, eta bestela hornitzaileari itzuliko zaizkio dagozkion oharrekin.

6. Adostasunez fiskalizatu ondoren, Korporazioko lehendakariari helaraziko zaizkio, onar ditzan.

7. Betebehar edo obligazioen onartzea fakturen zerrenda batean jaso ahal izango da agiri gisa.

21. artikulua.- Gauzatzeko faseen metatzea

Egintza bakar batean metatu daitezke eragiketa arrunten izaera duten gastuak, baita Kutxa Finkoko aurrerakinen bidez egiten direnak eta Zuritu edo Justifikatu beharrekoak ere. Zehatzago esanda:

- Korporazioko kideen eta Aurrekontuarekin batera onartzen den lanpostuen zerrendako langile guztien egun-sariak, bidai gastuak, kalte-ordainak, laguntzak eta ordain-sariak.
- Berandutzagatiko interesak eta beste finantza-gastu batzuk.
- Funtzionarioei itzul dakizkiekeen aurrerakinak.
- 221 eta 222 kontzeptuetako hornikuntzak, iragarkiak eta harpidetzak, Estatuaren zerbitzuengatiko kargak, eta estatuko edo autonomia erkidegoko legeek ezarritako gastuak.
- Aurrekontuan izen eta guzti emanda agertzen diren diru-laguntzak.
- Alogerak, kontrataturiko aseguru-sariak eta laguntza finkoak, orokorrean, horien ordainketa behar bezala onarturiko kontratuaren ondorio denean.
- Gizarte Segurantzako kuotak, graziazko hobekuntzak, sendagaiak eta langileentzako beste gizarte-laguntza batzuk.
- Posta, telegrafo eta telefono-zerbitzuengatiko gastuak, aurrekontu-kredituaren barruan.
- Eta orokorrean, Toki Erakundeak legez hartutako konpromisoen ondoriozkoak, egin beharreko zerbitzu, obra edo hornikuntzaren kostua ezagutzen bada, eta hipotesi horretan sartuta bezala hartzen dira hornikuntzak, faktura bakoitzaren zenbatekoa 500,00 € baino gehiagokoa ez denean.

22. artikulua.- Ordainketa agintzea

1. Korporazioko lehendakariari dagokio ordainketak agintzea, ordainketa-aginduen zerrendatan gauzatutako administrazio-egintzaren bidez. Ordainketaren izaerak edo premiak eskatzen duenean, agintzea banaka ere egin ahal izango da.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

2. Ekonomia eta administrazio-arintasunaren irizpidea kontuan, gastua onartzea Erakundeko lehendakariari dagokionean, aintzatetsitako betebeharrak onartzeko egintzan, horiek ordaintzeko agindua ere eman egingo da.

3. Ordainketa-aginduak Diruzaintzaren aurka onartu eta kitaturiko betebeharrak edo obligazioei buruz bakarrik egin ahal izango da.

23. artikulua.- Ordainketa-aginduak zuritu beharrekoak (Aurrekontu-ordainketak)

Zuritu beharreko ordainketa-aginduak dagokien ordainketatik hiru hilabeteko epean zurituko dira. Dena dela, abenduaren 15a baino lehen zurituta utzi behar dira.

24. artikulua.- Egun-sari, bidaia eta lekualdatzeengatik kalte-ordainak

Funtzionarioek eta lan-kontratuko langileek eskubidea dute, hala badagokie, Eusko Jaurlaritzaren 16/1993 Dekretuak, otsailaren 2koak, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoak, ezartzen dituen ordainak jasotzeko. Halaber, aplikatu beharrekoak izango dira Dekretu horren xedapen osagarriak eta kalte-ordainen zenbatekoa aldizka berrikusten duten Dekretuak ere.

25. artikulua.- Ekintza-programa gauzatu aurretiko jardunak

Ekintza-programa gauzatzen hasi aurretik ondorengo hauek bete behar dira:

1. Mankomunitateak ekitaldi horretarako duen Aurrekontu Orokorra onartzea, non behar hainbateko kreditua sartu beharko den aipaturiko Ekintza Programaren ondoriozko gastuei aurre egin ahal izateko.
2. Mankomunitateko Gobernu Juntaren berriazko erabakia aipaturiko Programa gauzatzeko, onartuz halaber ekintzen zehaztapena eta horren gastu-aurrekontua.
3. Programatik eratorritako gastu guztiak eta bakoitza baimentzea, ekintzak gauzatzuz joan ahala, Aurrekontua Gauzatzeko Arau honen 15. artikuluan ezarritakoaren arabera.
4. Gastu Aurrekontua kudeatzeko gainerako faseak, alegia:
 - Gastuaren xedatze/erabiltzea edo konpromisoa. (D)
 - Betebeharraren onartzea eta kitatzea. (O)
 - Gastuaren agindua. (ME)
 - Ordainketa materialki gauzatzea. (P)



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

AURREKONTUA GAUZATZEKO PROZEDURA - SARRERAK

26. artikulua.- Eskubideen onartzea. (R)

a) Eskubideen onartzea egingo da Erakundearen alde kitatze edo likidazio bat dagoela jakin bezain pronto. Ondorio horietarako, kitapena adostasunez fiskalizatuta, onartu egingo da eta, aldi berean, kontabilitatean idazpena egingo da.

b) Beste Administrazio, erakunde edo partikular batzuegandik hartu behar diren diru-laguntza edo transferentzien kasuan, zenbait betekizun betetzeko baldintzapean, konpromisoa akordio formalaren unean kontabilizatuko da.

27. artikulua.- Kobrantzen kontabilizazioa. (I)

1. Bilketatik datozen Sarrerak, horien aurrekontu-aplikazioa ezagutzen ez den bitartean, Aplikatzeke dauden Sarrera gisa kontabilizatuko dira.

2. Gainerako sarrerak beharrezko aginduaren bidez formalizatuko dira, dagokien aurrekontu-kontzeptuari aplikatuta, sarrera gauzatzen den unean.

3. Zerbitzu-kudeatzaileek diru-laguntzak emateari buruzko informazioa dutenean, berehala Kontu-hartzailetzari jakinarazi behar diote, horien jarraipena egin ahal izateko.

4. Bankuko kontuetan zeinahi ordainketa egiten den unean, Diruzaintzak Kontu-hartzailetzari jakinarazi behar dio horren kontabilitate-formalizazioa egin dezan.

BARNE KONTROLA

28. artikulua.- Barne kontrola

Debagoieneko Mankomunitatearen ekonomia eta finantza jardueraren barne-kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta finantza kontrolaren bitartez, barne-kontrolari buruzko 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoaren IV. Tituluaren (TEAFA), 2/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenaren (BKFD) eta 128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenaren (EGFED) 4. artikulua araberak.

Organo kontu-hartzailea da fiskalizazio lan ororen arduraduna eta tokiko sektore publikoaren jardueraren barne-kontrolaren eremuan jarduteko eskumenaren titularra.

1. Eginkizun kontu-hartzailea

1.1 Sarreren berri hartzeko araubidea BKFDren arabera.

Eginkizun kontu-hartzailearen xedea eskubideen onarpena dakarten egintzak, zein ere den haien kalifikazioa, eta haietatik datozen sarrerak kontrolatzea da, haien



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

kudeaketak kasuan kasu aplikatu beharreko xedapenak betetzen dituela ziurtatzeko.

9. artikulua arabera (*Eskubide eta sarreren aurretzako fiskalizazioa*) eskubideen aurretzako fiskalizazioa *kontabilitatearen berri hartzeari* datxekionarekin eta laginketa edo auditoretza teknikak erabiliz ondoren egiaztatzeke jarduketekin ordeztzen da.

Kontabilitatearen eta ondorengo egiaztapen jarduketan berri hartzeke araubideak Debagoieneko Mankomunitatean sortutako sarrereke eragingo die.

Nolanahi ere, ordea, hauek *aurretzako fiskalizazioa* gainditu beharko dute:

- Sarrera desegokiak itzultzearen ondorioz antolatu eta materialke ordaintzeke egintzek.
- Ondare ondasunen kudeaketak sortutako sarrereke, lurzoruaren udal ondaretik datozenak barne.

Arestian esandakoa hala izanike ere, ordenamendu juridikoan organo kontu-hartzaileari esleitutako kontrol jarduketan barruan aurreke txostena egitea finantza kontrolean sartutzat joko da.

1.2 Gastuen aurretzako fiskalizazio eta kontu-hartze araubideak BKFDren arabera.

Eginkizun kontu-hartzailearen xedea gastuak egitea dakarten egintzak, zein ere den haien kalifikazioa, eta haietatik datozen gastuak, eta oro har haren funts publikoen inbertsioa edo aplikazioa kontrolatzea da, haien kudeaketak kasuan kasu aplikatu beharreke xedapenak betetzen dituela ziurtatzeko.

1.2.1 Gastuen aurretzako fiskalizazioari lotu gabe

1. Ez dira aurretzako fiskalizazioari lotuta egongo gastu haueke dagozkien *onarpen eta konpromiso* faseak, BKFDren 17. artikuluan (*Aurretzako fiskalizazioaren salbuespena*) xedatzen denez:

- a) Material inbentariaezineke gastuak.
- b) Kontratu txikiak aurrekontua betearazteke arauan zehaztutakoa salbu
- c) Aldizkako gastuak eta segida traktuko gainerakoak, egintzaren hasierako aldiari dagokion gastua edo eragin dituen kontratua edo haren aldaketak fiskalizatu ondoren.

Aurreke gastuen finantza kontrola egingo da, kontrol iraunkorraren modalitatean, lagin adierazgarrietan era objektibo, sistematiko eta ausazkoak eginda planifikatutako finantza kontroleke jarduketan esparruan.

2. Aurretzako kontu-hartzea egingo zaie aurreke 1. idatz-zatikoko gastueke sortutako *betebeharren onarpenari*. Halaber, betebehar horien ordainketaren kontu-hartze formala eta materiala egingo da.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

1.2.2

Eremu subjektiboa

Gastuen aurretiazko fiskalizazioa eta kontu-hartzea Debagoieneko Mankomunitatean sortutakoei aplikatuko zaizkie.

1.2.3

Gastuen aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze prozedura

Lehenengoa. Dagokion ebazpena eman aurretik, organo kontu-hartzaileak eduki ekonomikoko betebeharrak edo funtsen eta baloreen mugimendua sor dezakeen egintza, agiri edo espediente oro aztertuko du, aplikatu beharreko xedapenekin bat datozela ziurtatzeko (aurretiazko fiskalizazioa); halaber, dagokion ebazpena eman aurretik, betebeharrak legea edo eskudun diren agintariak sinatutako negozio juridikoak betetzen dituztela eta pertsona edo erakunde hartzekodunak, kasuan kasu, dagokion zerbitzua bete edo bermatu duela egiaztatuko du (aurretiazko kontu-hartzea).

Bigarrena. Organo kontu-hartzaileak, eginkizun kontu-hartzailearen pean dauden puntuak egiaztatu ondoren, fiskalizazioa edo kontu-hartzea aplikatu zaion espedienteak legea betetzen duela uste badu, bere *adostasuna* jasoko du eginbide sinatu baten bidez, hura arrazoitu beharrik gabe.

Organo kontu-hartzailea aztertutako egintza, agiri edo espedienteen funtsarekin zein formarekin desados balego, idatziz egin beharko ditu bere eragozpenak.

Eragozpena etetekoa ez bada, organo kontu-hartzaileak aldeko txosten bat egin dezake, egintza onartu aurretik zuzentzeko baldintza jarritz, edo eragozpen ez-etengarria adierazi.

Eragozpena etengarria bada, eten egingo da espedientearen izapidetzea hura konpondu arte.

Organo kontu-hartzaileak, gainera, komenigarritzat jotzen dituen ohar osagarriak egin ahalko ditu *eginkizun kontu-hartzailearen xede diren puntuak ez diren alderdiei buruz*, baina haiek ez dute inoiz etengo espedienteen izapidetzea.

Hirugarrena. Espedientea organo kudeatzaileari itzultzen zaio.

Laugarrena. Eragozpena adierazi zaion organoak onartzen badu, ikusitako gabeziak zuzendu eta berriz bidali beharko dizkio jarduketak organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Halaber, organo kontu-hartzailearen aldeko txostenean baldintzekin adierazitako akatsak konpondu izanaren frogagiriak bidali beharko ditu.

Eragozpena adierazi zaion organoak onartzen ez bada, toki erakundeko presidenteari edo Gobernu batzordeari (hurrengo bosgarren idatz-zatian xedatu denez) desadostasun bat adieraziko dio eragozpena jaso eta hamabost eguneko epean.

Eragozpenak eginkizun kontu-hartzailea egin den tokiko erakunde autonomoen edo partzuergoen gastuei buruzkoak badira eta Gobernu batzordeak ebatzi behar baditu,



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

komunikazioa erakundeko edo partzuergoko arduradunen bidez egingo da, dagokion Gobernu batzordearen gai-zerrendan derrigorrez sartzeko, puntu bereizi batean.

Bosgarrena. Desadostasuna, orokorrean, toki erakundeko presidenteak ebatziko du hamabost eguneko epean, eta haren ebazpena betearazlea izango da. Eskumen hori ezingo da inolaz ere eskuordetu.

Erakundeko Gobernu batzordeak, ordea, epe berean ebatziko du desadostasuna, eta haren ebazpena ere betearazlea eta eskuorde ezina izango da eragozpenen zioa kreditu nahikorik ez egotea edo desegokia izatea denean edo dagozkien betebeharrak edo gastuak onartzea haren eskumena denean.

Seigarrena. Desadostasuna ebatzita, espediente izapidetzen jarraitu ahalko da eta, nolana ere, jasota utziko da dagokion ebazpenean ezarritako irizpidearekin edo, hala badagokio, organo kontu-hartzaileak ezarritako irizpideak ez aplikatzeko zioarekin bat datorrela.

Zazpigarrena. Toki erakundeko presidenteak eta Gobernu batzordeak organo kontu-hartzaileak egindako eragozpenen edo Foru Aldundiko kontrol organoak egindako txostenen aurka hartutako erabaki guztien urteko txosten bat bidaliko dio Gobernu batzordeari kontu orokorra onartzen denean. Toki erakundeko presidenteak bere jarduketa justifikatzeko txostena aurkeztu ahalko du Gobernu batzordean.

Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegiari bidaliko dizkio egindako eragozpenen aurkako diren ebazpenak eta erabakiak, etengarriak eta ez-etengarriak bereiziz.

Zortzigarrena. Eginkizun kontu-hartzailea derrigorrezkoa bada eta bete ez bada, ezingo da betebeharra onartu, ez ordainketa izapidetu, ez jarduketa horien aldeko kontu-hartzea egin ez-egite hori aztertu eta ebatzi arte. Organo kontu-hartzaileak, espediente bat aztertzean, eginkizun kontu-hartzailea egin ez dela ikusiko balu, hura hasi zuen agintariari adieraziko dio eta aldi berean bere iritzia emango du proposamenari buruz, txostena eta jarduketak batuz, toki erakundeko presidenteak edo Gobernu batzordeak (bere eskumeneko betebeharrak edo gastuak direnean) prozedurak eta, kasuan kasu, dagozkion gainerako jarduketek jarraituko duten erabaki ahal izateko. (II.2 ERANSKINA)

1.2.4 Oinarrizko baldintzen aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatua

Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu batzordeak aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea erabakitzen du BKFDren 13. artikulua (Oinarrizko baldintzen aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea) aplikatuta, organo kontu-hartzailearen txostenaren ondoren, eta presidenteak proposatuta.

Agiriak. Gobernu batzordearen erabakiz, espediente moten arabera, kontu-hartu edo fiskalizatu beharreko oinarrizko baldintzak ezarri baditu ere, BKFDren 10. artikuluan (Eginkizun kontu-hartzailea betetzeko unea eta epea) arautzen denez, organo kontu-hartzaileak jatorrizko espediente osoa jasoko du, egiaztagiri guztiak



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

bildu eta nahitaezko txostenak egindakoan, eta organo eskuduna erabakia hartzeko prest dagoenean.

Epea. Organo kontu-hartzaileak, artikuluko berak jarraitzen duenez, bost egun balioduneko epean fiskalizatuko du espedientea. Oinarrizko baldintzen aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubide berezia aplikatzen ez zaien espedienteetarako, epea *hamar egun baliodunetara* arte handitzen da. Epe horiek jatorrizko espedientea hartzen den data eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen eta agiri guztiak eduki ondoren.

Artikulu horren arabera, aurreko epean eten egingo dira egintza, agiri edo espedientearen izaera dela-eta, organo kontu-hartzailearen iritziz toki erakundeko organoetatik beharrezkotzat jotzen dituen aholku juridikoak eta txosten teknikoak zuzenean jaso behar direnean, baita barne-kontrolako eginkizunak betetzeko behar diren aurrekariak eta agiriak ere, zein ere den haien euskarria. Halaber, organo kontu-hartzaileek tokiko laguntza zerbitzuen eta foru aldundian eskudun diren organoen aholkularitza eta txostena jaso ahalko dituzte, toki erakundeko presidentearen bitartez.

Epea eteten denean organo kontu-hartzaileak inguruabar horren berri eman beharko dio organo kudeatzaileari.

Oinarrizko baldintzetako araubideko espedienteak. Oinarrizko baldintzen aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea aplikatuko zaie arlo hauetan zerrendatutako gastuen espedientei, I. ERANSKINEAN (OINARRIZKO BALDINTZEN AURRETIAZKO FISKALIZAZIO ETA/EDO KONTU-HARTZE MUGATUA) jaso denez:

- 1 Langileak
- 2 Kontratazioa, ondare kontratuak eta kontratu pribatuak, eta ondare erantzukizuna
- 3 Diru-laguntzak eta transferentziak, eta 40/2015 Legeari lotutako lankidetzahitzarmenak

Gastu espediente bakoitzean aztertu beharreko puntuak zehaztean, 13. artikuluan (*Oinarrizko baldintzen aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea*: aurrekontuko kreditu egokia egotea eta betebeharra edo gastua sortzen duen organoaren eskumena) eta 19. artikuluan (*Egiaztapenen edukia*: gastuaren aurreko faseen aldeko fiskalizazioa, aplikatu beharreko xedapenen egiaztatgiriak betetzea, eta inbertsioaren egiaztapen materiala) ezarritakoak ez ezik, jarduketa publikoetan objektibotasuna, gardentasuna, bazterkeriarik eza eta tratu berdintasuna ziurtatzeko baldintzak sartzen dira.

Oinarrizko betekizun orokorrak A letraren ostekoak dira. Ez betetzeak etendura eragiten duen eragozpena sortuko du.

Organo kontu-hartzaileak komenigarritzat jotzen dituen ohar osagarriak egin ahalko ditu, baina haiek ez dute inolaz ere etengo dagozkien espedienteen izapidetzea.

Aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze araubide orokorra aplikatuko zaie gastu eta betebeharrak mota haiei, zeinentzat ez baita adostu aurretiazko fiskalizazio eta kontu-



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

hartze mugatuaren ondorioetarako oinarrizko baldintzen araubidea, baita zenbateko zehaztugabeko gastuei ere.

Ondorengo fiskalizazio eta kontu-hartze osoa. Oinarrizko baldintzen aurretiazko fiskalizazio mugatua egin zaien betebeharrak edo gastuei *beste fiskalizazio oso bat egin ahalko zaie geroago*, fiskalizazio hori eragin zuten egintza, agiri edo espedienteen lagin adierazgarri batean, laginketa edo auditoretza teknikak aplikatuz, kasu bakoitzean aplikatu beharreko xedapenak betetzen dituztela egiaztatu eta kredituen kudeaketan legea zein mailatan bete den zehazteko.

Ondorengo kontrol oso hori finantza kontrol iraunkorraren barruan kokatzen da eta, hala badagokio, organo kontu-hartzaileak egindako finantza kontroleko urteko planean gauzatuko da.

1.2.5 Inbertsioa materialki egiaztatzea

Organo kontu-hartzaileak egingo du. Organo kontu-hartzaileak aholkularitza jaso ahalko du, egiaztapen materialak egiteko ezaguera teknikoak eduki behar direnean.

Gastua likidatu edo betebeharra onartu *aurretik* egingo da.

Aholkatzen duten inguruabarrak sumatzen direnean, organo kontu-hartzaileak inbertsioaren egiaztapen materialak inbertsioa gauzatu bitartean egitea erabaki ahalko du. Organo kudeatzaileek inbertsioa jasotzeko aurreikusitako data iritsi baino hogeitun egun lehenago eskatu beharko diote laguntza organo kontu-hartzaileari, edo berak eskuordetutakoari.

Ez da laguntzarik emango kontratu txikiak materialki jasotzean.

Inbertsioak benetan egin direla eta dagokien kontratuaren edukiarekin bat datozeela egiaztatuko da.

Inbertsioaren egiaztapen materialaren kontu-hartzea erabiliko dira. Zehazki, laginketa ez estatistikoa erabiliko da, organo kontu-hartzailearen irizpide profesionalaren arabera, laginketaren elementuak hautatzeko.

Inbertsioaren egiaztapen materialaren emaitza aktan jasoko da eta inbertsioa jasotzeko egintzara doazen guztiek sinatuko dute.

1.2.6 Ordainketaren, kutxa finkoko aurrerakinen eta justifikatu beharreko ordainketen kontu-hartze formalak eta materialak eragindako jarduketak

Organo kontu-hartzaileak esleituta dauka ordaintzeko aginduak ondo ematen direla egiaztatzeko eskumena, ordainketaren aginduaren kontu-hartze formalaren bidez, BKFDren 8. artikuluan (*Eginkizun kontu-hartzailearen edukia*) xedatzen denez.

13. artikuluan aurretiazko fiskalizazio mugatuko araubideari buruz xedatutakoa kaltetu gabe, eginkizun kontu-hartzailea gauzatzean ordainketaren kontu-hartze formala eta materiala, justifikatu beharreko ordaintzeko aginduen eta kutxa finkoko aurrerakinen aurretiazko fiskalizazioa, eta justifikatu beharreko ordainketak eta kutxa finkoko aurrerakinak justifikatzeko kontuen kontu-hartzea sartzen dira.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

III. Eranskinean ordainketaren, kutxa finkoko aurrerakinen eta justifikatu beharreko ordainketen kontu-hartze formalak eta materialak eragindako jarduketetan aztertu beharreko beste puntu eta/edo baldintza guztiak azaldu dira.

Justifikatu beharreko ordainketen eta kutxa finkoko aurrerakinen justifikazio kontuetan adierazitako puntuak partida bakoitza justifikatzen duten kontuak eta agiriak aztertuz egiaztatuko dira.

2. Gastuen eta sarreraren finantza kontrola bKFD-ren arabera

2.1

Eremu objektiboa

Finantza kontrolaren xedea tokiko sektore publikoaren zerbitzuen funtzionamendua egiaztatzea da, alderdi ekonomiko eta finantzarioan, arautzen dituzten araudia eta gidalerroak betetzen direla, programatutako helburuak zein mailatan betetzen diren, haien kostua eta errendimendua eta, oro har, haien kudeaketak finantza kudeaketa onaren printzipioak betetzen dituela egiaztatzeko, egiaztatuz baliabide publikoen kudeaketa eraginkortasunak, efizientziak, ekonomiak, kalitateak eta gardentasunak, eta aurrekontu-egonkortasunaren eta tokiko baliabide publikoen erabilerako finantza jasangarritasunaren printzipioek gidatzen dutela.

Finantza kontrolak, hala definituta, finantza kontrol iraunkorreko eta auditoria publikoko modalitateak biltzen ditu. Modalitate bietan sartuko da eraginkortasunaren kontrola. Haren bidez, hauek zein mailatan betetzen diren egiaztatuko da: programatutako helburuak, zerbitzuen kostua eta errendimendua eraginkortasunak, efizientziaren, aurrekontu-egonkortasunaren eta tokiko baliabide publikoen erabilerako finantza jasangarritasunaren printzipioen arabera.

Gainera, finantza kontrola egitean, nolana ere, ordenamendu juridikoan organo kontu-hartzaileari esleitutako kontrol jarduketak sartuko dira.

2.2

Finantza kontrolaren plangintza

Finantza kontroleko urteko planak ekitaldian egin beharreko kontrol iraunkorreko eta auditoretza publikoko jarduketak jasoko ditu, arlo bakoitzeko arriskuen analisisan oinarrituta (IV. ERANSKINA. 3. puntua)

Plan hori Gobernu batzordeari jakinaraziko zaio, irismen material, subjektibo eta tenporalari buruzko berriazko xehetasun batekin.

Finantza kontroleko urteko plana behar bezala aztertutako beste zio batzuegatik aldatu ahalko da eta Gobernu batzordeari bidaliko zaio informatzeko.

2.3

Kontrol finantzarioko txostenak

Kontrol iraunkorreko jarduketan eta auditoretza bakoitzaren emaitza idatzizko txostenetan dokumentatuko da. Haietan, modu argi, objektibo eta neurtuan azalduko dira egiaztatutako gertakariak, lortutako ondorioak eta, hala badagokio, kontroleko jarduketei buruzko gomendioak.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Txosten horien egitura, edukia eta izapidea bat etorriko dira kontrol finantzarioko eta auditoretzako arau teknikoekin (Finantza kontrol iraunkorreko txosten eredu – IV ERANSKINA 5.7 puntua).

Kontrol finantzarioaren behin betiko txostenak organo kontu-hartzaileak bidaliko dizkie kontroleko jarduera ekonomiko-finantzarioa zuzenean kudeatzen duenari eta toki entitateko lehendakariari. Halaber, urteko kontuen auditoretza txostenak egoitza elektronikoko korporatiboetan argitaratu beharko dira, dagokien entitatearen kontabilitate informazioarekin batera.

3. Txosten laburtzailea eta ekintza plana

3.1 Txosten laburtzailea

Organo kontu-hartzaileak, urtero eta kontu orokorra onartzen denean, barne-kontrolaren emaitzen laburpen-txostena egingo du eta Gobernu batzordeari bidaliko zaio, korporazioko presidentearen bitartez eta aurreko ekitaldian egindako finantza kontroleko eta eginkizun kontu-hartzaileko jarduketek eragindako emaitzarik esanguratsuenak jasoko ditu.

Txostenaren edukian euren garrantzi kuantitatibo edo kualitatiboagatik, errepikatzeagatik, berriak izateagatik, zein organo kontu-hartzailearen iritziz egoki den beste edozein inguruabarrengatik esanguratsu diren alderdiak sartuko dira eta ekitaldian kontrolatutako jardueraren zuzeneko kudeatzaileei bidalitako txostenetan egon beharko du. (Txosten laburtzailearen eredu – V. ERANSKINA)

3.2 Ekintza plana

Tokiko erakundeko presidentek, laburpen txostena Gobernu batzordeari bidali eta 3 hileko epean gehienez, ekintza plan bat formalizatuko du. Laburpen txostenean agertutako ahuleziak, gabeziak, akatsak eta ez-betetzeak zuzentzeko hartu beharreko neurriak zehaztuko ditu plan horrek (Ekintza planaren eredu – V. ERANSKINA)

Ekintza plana toki erakundeko organo esku-hartzaileari igorriko zaio, eta berak baloratuko du egokia den adierazitako gabeziak zuzentzeko eta, hala badagokio, lortutako emaitzak.

Presidentek Gobernu batzordeari emango dio barne-kontrola egitean agertutako ahulezien zuzenketaren egoeraren berri eta, horrela, Gobernu batzordeak kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa hobetzeko ezarritako neurri zuzentzaileen aldizkako jarraipena egin ahalko du.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena: Oinarri hauetan ezarri gabeko gaitan, orokorrean indarrean dagoen Toki-legeria, Aurrekontu Lege Orokorra, Zerga Lege Orokorra eta aplikatzekoak diren



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

gainerako arauak beteko dira, baita Korporazioak erabakitzen duena ere, aldez aurretik Kontu-hartzaileak txostena eginda.

Bigarrena: Korporazioaren lehendakaria da Oinarri hauek interpretatzeko organo eskuduna, aurrez idazkariak edo kontu-hartzaileak txostena eginda, nork bere eskuduntzen arabera.

AZKEN XEDAPENA.

Aurrekontua gauzatzeko oinarrien proiektu hau behin betikotzat joko da eta aplikatu egingo da onartu ondoren, eta 2026ko ekitaldi ekonomikorako Aurrekontua indarrean dagoen bitartean aginduko du, baita Aurrekontu horren luzapenean ere, baldin eta 2027ko urtarrilaren lehenean ez bada indarrean sartzen 2027 ekitaldirako Aurrekontua.

Arrasaten, 2025ko abenduaren 15ean.

LEHENDAKARIA

Izpta.: Dorleta Elkorobarrutia